

## KOSTUAK

Gure kostuen egiturari dagokionez, ondorengoak izango dira:

Lehenik eta behin **kostu finkoak** izango ditugu, hala nola bulego bat beharko dugu, gure aurrezkiak aprobeztatuz, hau eskuratu dugu eta beraz ez dugu erosi beharrik. Bulegoaren alokailua hilabeteko 300€ inguru kostatuko digu (argindarra).

Erreforma txiki batzuk besterik ez ditugu egin behar bulegoa gure beharretara egokitzeko, baita proiektua aurrera eramateko materialak ere.

Horretarako, autobus bat lortzen lagunduko digun konpainia bat behar dugu. Gero, nahi dugun moduan pertsonalizatzen lagunduko digun enpresaren bat bilatu beharko genuke.

Telefonoa eta internetaren tarifaren kostua 20€-koa izango da, **zuzena eta finkoa**.

Kostu **aldakorrak**, ekoiztutako kantitaren arabera direnak, bi multzoetan banatu ditugu. Alde batetik, autobusaren mantenimendua dago, hauek 1.000€/hilabeteko kostu aldakorra izango lukete (zenbat denbora alokatuko ditugun arabera, zein ibilbidea egiten duen arabera...). Bestalde, iragarkien materialak beharko ditugu (kartelak, publizitatea...) honek 200€ko kostua izango luke, izan ere aldakorra izango da, enpresaren egoera ikusita publizitate gehiago erabiliko dugu eta alderantziz. Gainera gidarien saldoa ere badago, eta 900€ hilabetero izango dena, Astelehenetik-Igandera banandutako lanaldiak izango dutenak.

Autobus batekin hainbat bidai-txartel salduko ditugu, nahiko eskuragarria izango dena eta gure web orrialdetik (iragarkien kostuetan sartzen dena) erosiko direnak, 5 bidaietako txartela 10€koa izango da.

Hauek izango ziren gure gastuak.